

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Taldeko joko-jolasak amankomunean dituzten ezaugarrietaz jabetzea eta eskuratzea, taldeekideekin elkarlanean aritu, aurkariel aurre egin eta helburu zehatz bat lortzeko martxan jarri beharreko tresnak praktikatu eta barneratuz.	1.1. Joku eta jolas egoeretan erabaki zuzenenak hartzeko gai da, beti ere taldearen emaitzarik hobereenak ateratzeko helburuarekin. Taldeko joko-jolasetan aurkari bati edo batzuei aurre egiteko gai da, bai erasotzaile gisa, bai defendatzaile gisa.
2. Joku-jolas bakoitzaren jatorria eta aurrera eraman ahal izateko beharrezko elementuak identifikatu eta ulertzea.	2.1. Joku-jolasen elementu ezberdinen arteko bereizketa egiteko gai da: Espazio ziurra-ziurgabea; harreman psikomotor-soziomotorrak (aurkaritza), materiala eta irabazlearekin edo gabe (joko-jolasa noiz bukatzen den).
3. Jarduera Fisikoaren munduaren barruan lehia zuzenik gabeko jardueren ezagutza eta horiekiko plazerra eskuratzea.	3.1. Ikaskideekin elkarreaginean jarduten du, eta haietako bakoitza errespetatzen du. Bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen da.
4. Kooperaziozko taldekako joko-jolasetan arrakastarako estrategiaz jabetzea, elkarlanak duen garrantziaz jabetuz.	4.1. Komunikazio eredu errazak egiten ditu talde txikietan, kutsu adierazkorra ematen dio eta gainerako kideetara egokitzen du saioa.
5. Ikastolan ditugun baliabide ezberdinetan baliatuz (espazioa eta materiala) jarduera-jolas eta kirol berriak sortzeko gaitasuna lantzea.	5.1. Denbora librea eskainitako saio edo tarteetan jarduera fisiko eta kirolarekin loturiko jarduerak diseinatu eta asmatzeko gai da.
6. Jarduera fisiko guztiak egitean nor bere buruarekin eta besteekin jarrera arduratsua izateko prest agertzea.	6.1. Norberaren ahalegina eta taldearekin ezartzen diren harremanak identifikatu eta haien jolastu-jokatzekeo gai da, jolasen eta kirol-jardueren oinarriko balio diren aldetik.
7. Jarduera fisikoa egitean ekipamenduari eta higiene-ohiturei erreparatzea, bizi-ohitura osasungarriak finkatzen eta autonomia izaten laguntzeko.	7.1. Denbora libreko saioetan aurretik adostu eta azalduetako arauak errespetatzeko gai da; Jarduera ezberdinak egitea, instalazio eta materialaren zaintza...